

ABENDUALDIKO II. IGANDEA (B)

Otoitza

Jainko errukitsu ahalguztiduna,
 lur honetako egintzek ez gaitzatela lotu
 zure Semearen bidera goazenok,
 eta jainko jakinduriaren erakuspenek eraman gaitzatela
 zure Semearekin bat egitera.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Is 40, 1-5. 9-11

Urra ezazue bide bat Jaunarentzat.

Isaias Profetaren liburutik

«Poztu, poztu ezazue nire herria
 —dio zuen Jainkoak—.
 Mintza bihotzera Jerusalem, oihu egiozue:
 Betea duela morroi aldia,
 ordaindua gaiztakeria;
 Jaunaren eskutik hartu duela,
 bekatu guztien ordain bete».
 Mintzo bat ari da oihuka:
 «Urra ezazue basamortuan
 bide bat Jaunarentzat;
 zelaitu eremuan
 bide zabal bat gure Jainkoarentzat.
 Gora daitezela haranak,
 behera, mendi eta muinoak;
 berdin daitezela malkarrak,
 zelaitu lur maldak.
 Eta Jaunaren aintza agertuko da,
 eta gizaki guztiek ikusiko dute
 —hala esan du Jaunaren ahoak!—».

Igo mendi gailurrera, Siongo mezularia;
egin deiadar haundi, Jerusalengo mezularia;
egin deiadar, ez izan beldurrik.

Esan Judako hiriei:

«Hara hemen zuen Jaungoikoa.

Hara, indarrez jantzita dator Jainko Jauna,
eta bere besoa nagusi da.

Hara, Berekin dakar saria,
eta bere aurretik, irabazia.

Artzainak bere artaldea bezala du zaintzen,
eta bere besoaz biltzen.

Axuriak altzoan ditu hartzen,
eta ardi amak samurki eramaten».

ERANTZUN SALMOA: Sal 84, 9ab-10. 11-12. 13-14

**R/. Jauna, zure onginahia erakusiezaguzu,
zure salbamena emaguzu.**

Entzungo dut Jainko Jaunak dioen hitza:

«Bakezkoa da Jainkoaren hitza».

Hurbil zaie Haren beldur direnei salbamena:
gure lurrean Haren aintza biziko da. R/.

Onginahia eta leialtasuna elkarren bidera aterako dira,
zuzentasuna eta bakea laztanka biziko dira.

Lurretik erneko da leialtasuna,
zerutik begira egongo zuzentasuna. R/.

Jainkoak on dena emango du,
gure lurak bere uzta ekarriko du.
Zuzentasuna ibiliko da Haren aurrean,
eta salbamena Haren urratsen bidean. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 P 3, 8-14

Zeru berriak eta lur berria itxaroten ditugu.

San Pedro Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok: Hau da zuek ahaztu behar ez duzuen: Jaunarentzat mila urte bezala dela egun bat, eta egun bat bezala, mila urte. Jauna ez da berandukorra agintzaria betetzen, batzuek hala uste badute ere; baizik eta eramanpena du zuekin; ez baitu nahi inor galtzerik, guztiok bihotz-berritzea baizik. Jaunaren eguna lapurra bezala etorriko da. Orduan zeruak zaratotsez bukatuko dira; lurgaiak sutan ezereztuko dira, eta lurra eta bertako gauza guztiak kiskaliko.

Gauza hauek guztiak honela ezereztu beharrak direnez gero, zeinen santu eta jainkozale izan behar duen zuen bizitzak!

Itxaron ezazue eta aurrerarazi Jaunaren egunaren etorrera; egun hartan zeruak sugarretan ezereztuko dira, eta lurgaiak erre eta urtuko. Guk, ordea, Jaunak agindu bezala, zuzentasunaren bizileku diren zeru berriak eta lur berria itxaroten ditugu.

Beraz, hauek itxaroten dituzuela, senide maiteok, ahalegin zaitzte, Jainkoak bere aurrean garbi eta errurik gabe bakean aurki zaitzaten.

EBANJELIOA: Mk 1, 1-8

Alleluia: Lk 3, 4b. 6

R/. Alleluia.

V/. Urre ezazue bidea Jaunarentzat,
zuzendu Haren bideskak;
eta ikusiko dute guztiek
Jaungoikoaren salbamena. R/.

Zuzendu Haren bideskak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Jaungoikoaren Seme Jesu Kristoren Ebanjelioaren hasiera.

Isaias profetarenean honela dago idatzia:

«Begira, hor bidaltzen dut Nik mezularia zure aurretik,
zuri bidea prestatzera.

Mintzo bat oihuka ari da basamortuan:

"Urre ezazue bidea Jaunarentzat,
zuzendu Haren bideskak"».

Hala agertu zen Joan basamortuan, bataiatzen eta bihotz-berritzeko bataioa hotsegiten, bekatuen barkamenerako. Judeatik eta Jerusalendik harengana joaten zen jende guztia; haiek aitortzen zituzten beren bekatuak, eta hark bataiatu egiten zituen Jordan ibaian.

Joan gamelu-larraz jantzia zegoen; eta gerrian, larruzko uhala; basalangostak eta basaeztia zituen janari. Eta honela hotsegiten zuen: «Nire ondoren dator, ni baino ahaltsuagoa dena, ni ez bainaiz inor, makurtuta, Haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; Hark, ordea,

Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte».

Oparigaien gainekoa

Biguin zaitzatela, Jauna,
gure otoitz eta eskaintza apal hauek,
eta, gure merezimenturik ezin aitatu dugunez gero,
zure errukiak lagun diezagula.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdikoa.

Jaunartze ondorengoa

Arimen janari honek aserik,
otoitzean gatozkizu, Jauna:
erakus iezaguzu, sakramentu honetan parte hartu dugunoi,
lurreko gauzak zentzuz erabiltzen
eta zerukoei jarraitzen.
Jesu Kristo.